

Uxue Igartua Kortabarria

*Oñati,
Gipuzkoa
(2007)*

Aurkibidea

Biografia



*Elkar Hezi ikastetxeko
ikaslea, hitanoari
buruzko iritzia
jasotzeko
elkarrizketatu dugu,
Maddi Atorrasagasti
ikaskidearekin batera.
Guraso biak
Oñatikoka ditu.
Elkarrizketa egin
genionean Batxi-2ko
ikaslea zen.*

Zintak

ONA-317

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Altolagirre Etxeberria, Maddi - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2025-05-07
- **Iraupena:** 39 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Hitanoaren berezitasunak

- **Erref:** ONA-317/003
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:02:54. **Bukatu:** 00:03:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoaren bereizgarriak: lagunarteko elkarrizketan gertutasuna ematen du, generoa bereizten du.

2. Toka nagusi Oñatin; noka gutxi

- **Erref:** ONA-317/004
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:03:28. **Bukatu:** 00:07:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Oñatin hika bizirik dago, baina toka entzuten da nagusiki eta mutilen artean. Parrandan hasten diren sasoian hasten dira elkarrekin hika mutilak. Etxean ez dute hika jaso, nahiz eta euren aitek lagunartean hika pixka bat egin. Noka gutxi entzun izan dute, esaldi solteak gehienbat. Ikastetxean ere hika gutxi.

3. Nokaren galeraren arrazoiak

- **Erref:** ONA-317/006
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:07:29. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Etxe batzuetan semeari hika egin izan diote, baina alabari ez. Ohitura kontua edo noka ez jakitea izan daitekeela arrazoiak uste dute. Nokaren galeraren arrazoiak. Emakumeek hika egitea gaizki ikusita zegoela entzuna dute.

Emakumeek sozializatzeko aukera gutxiago izatea ere izan daiteke beste arrazoi bat.

4. Hika, baserrian eta kalean

- **Erref:** ONA-317/008
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:10:09. **Bukatu:** 00:10:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Garai batean hika baserritarren hizkeratzat hartzen zen. Gaur egun agian baserrietan gehiago erabiliko dela, baina kalean ere erabiltzen dela eta ez dagoela bereizketa nabarmenik uste dute.

5. Hikaren inguruko iritzia

- **Erref:** ONA-317/011
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:11:34. **Bukatu:** 00:12:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hikaren inguruko iritzia. Gustatzen zaie, baina ez dute erabiltzen.

6. Hitanoak generoa bereiztea ez dute arazo gisa ikusten

- **Erref:** ONA-317/014
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:13:04. **Bukatu:** 00:14:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Hikak generoa bereizten du eta batzuek horren aurka azaldu daitezke, baina ez dute arazorik ikusten horrekin, elkarrizketa kideak aukeratu baitezake berari noka ala toka egitea nahi duen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com